

**“OSASUNA FUNDAZIOAREN”
ESTATUTUAK**

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Izena eta izaera.

OSASUNA FUNDAZIOA izenarekin, eta Foru Berriaren 42. Legearekin bat etorrita, irabazi-asmorik gabeko erakunde bat eratu da, bere fundatzaileen borondatez bere ondarea Estatutu hauetan zehazturiko interes orokorreko helburuak betetzera iraunkorki atxikita duena.

2. artikulua. Jardun-eremua eta egoitza.

1.- Fundazioak, batez ere, Nafarroako Foru Komunitateko eremuan garatuko ditu bere jarduerak, baina Estatuan ere egin ahal izango ditu, baita nazioartean ere.

2.- Hau da Fundazioaren egoitzaren helbidea: Sadar kalea, z.g. (Sadar Estadioa), 31006 Iruñea (Nafarroa).

3.- Patronatuak Fundazioaren egoitza aldatu ahal izango du, Estatutuetan dagokion aldaketa ginez, betiere Nafarroako Foru Komunitatearen barruan.

3. artikulua. Iraupena.

Fundazioak irauteko asmoa du, eta iraupen mugagabearekin eratu da.

4. artikulua. Nortasun eta gaitasun juridikoa.

1.- Fundazioak nortasun juridikoa du eratze-egintza Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatu zenetik, eta, une horretatik aurrera, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoak ditu.

2. Ondorioz, eratu zen uneko helburuak betetzeko beharrezko egintza guztiak egin ditzake, indarreko araudian ezarritakoaren arabera.

5. artikulua. Araubide juridikoa eta zerga-araubidea.

1.- Fundazioa fundatzaileen borondateak eraentzen du, hau da, eratze-agirian, Estatutu hauetan, Estatutuok interpretatzeko eta garatzeko Patronatuak ezartzen dituen xedapenetan, eta, betiere, Nafarroako Foru Berrian eta aplikatzekoak diren gainerako lege- eta erregelamendu-xedapenetan adierazitakoak.

2.- Fundazioaren babesletza gauzatuko da gaiaren arabera Fundazioaren xede nagusiekin loturiko eskuduntzen titularra den Sailaren bitartez, Estatutu hauetan deskribatzen den moduan.

3.- Fundazioak maiatzaren 24ko 2/2023 Legegintzako Foru Dekretuan araututako zerga-araubide berezia aplikatzea erabaki du, eta hari lotuta egongo da hura aplikatzeko baldintzak betetzen dituen bitartean edo araubideari uko egiten diola jakinarazten ez duen bitartean.

II. KAPITULUA. FUNDAZIOAREN XEDEA

6. artikulua. Fundazioaren helburuak.

Hauek dira Fundazioak bete nahi dituen interes orokorreko helburuak:

- a. Pertsonaren prestakuntzan funtsezko balioak izaki, kirol-espirtua eta “fair play” zabaltzea, bereziki honako esparru hauetan:
 - oinarri-futbola eta Osasunaren harrobia garatzeko eta sustatzeko eta
 - adin guztietako emakumeek kirolean duten garrantzia azpimarratzeko, gehienbat Futbolaren bidez. Era berean, emakumea babesteko eta genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko kanpainak sustatzea eta zabaltzea du xede.
- b. Beren egoera fisikoagatik, ekonomikoagatik edo beste edozein motatakoagatik kirolerako ezinduta dauden pertsona guztiak kirol-jardueran aritzea bultzatzea eta sustatzea, batik bat desgaitasun fisiko edo intelektualen bat duten pertsonak, eta une oro gizarteratzen saiatzea. Horretarako, desgaitasuna duten pertsonentzako futbol-eskola izan beharko du, bai eta “Genuine Liga” delakoan edo haren ordezkoi batean parte hartuko duten futbol-taldeak ere.

7. artikulua. Fundazioaren jardura nagusiak.

1.- Aurreko puntuan adierazitako helburuak hobeki betetzeko, Fundazioak honako jardura hauek egingo ditu, nagusiki:

- a. Bere jardun-eremuan irakaskuntza- eta kirol-jardura guztiak antolatu, bestek beste Osasunaren kirol-, kultura- eta gizarte-dimentsioa hedatu eta sustatu, irabazi-asmorik gabe, hauen artean:
 - Nafarroako Foru Komunitateko haurrak, haurtzarotik adin-nagusitasunera arte.
 - Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden adingabeak.
 - Askatasunik gabeko pertsonak (Espetxea).
 - Nafarroako Foru Komunitateko 65 urtetik gorako pertsonak.

b. Futboleko edo beste kirol batzuetako kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartu, lagunarteko, profesional zein amateurretan, gizonezkoen zein emakumezkoen taldeekin, batez ere futboleko, eta kirol hori sustatu eta irakatsi.

Parte-hartze horrek Estatuko eta nazioarteko eremua hartzen du, bai lehiaketa ofizialetan bai pribatuetan, Federation International de Football Association-ek (FIFA), Europako Futbol Federazioen Batasunak (UEFA), Espainiako Futboleko Errege Federazioak (RFEF), Futbol Profesionaleko Liga Nazionalak (LFP) eta gainerako erakunde eskudunek ezartzen dituzten arauen arabera, bai eta haien oinarri diren federazioekin bat etorrita ere, beste kirol-jardura batzuei dagokienez.

- c. Beste erakunde sozial, kultural, artistiko, ongintzako eta kirol-arloko batzuekin lankidetzan jardun, Estatukoak nahiz atzerrikoak izan, ahal den neurrian eta moduan, Fundazioaren helburuak betetzeko.
- d. Kirol-instalazioak hobetzera eta kirolarien hobekuntza fisikora bideratutako mota orotako jarduerak egin.
- e. Kultura- eta kirol-arazoei buruzko azterlanak eta ikerketak egin eta argitaratu.
- f. Fundazioaren xedeekin zerikusia duten museoak, kolunbarioak eta kultura-erakundeak sustatu eta kudeatu, gizartean xedeok bultzatzeko bidea izan daitezen.
- g. Sariak sortu eta antolatu, ikerketak finantzatu, bekak eman eta liburuak plazaratu.
- h. Zailtasun fisikoak edo ekonomikoak dituzten pertsonei laguntza ekonomikoa eman, kirolerako sarbidea errazteko, genero-indarkeriaren aurka babesteko edo kirolaren bidez gizarteratzeko.
- i. Desgaitasuna duten pertsonentzako futbol-eskola abiatu, eta "Genuine Ligan" edo haren ordezkoko beste edozeinetan parte hartzen duten futbol-taldeak ere bai.
- j. Patronatuaren iritziz Fundazioaren eraketaren espiritua gauzatzea dakarren beste edozein jarduera.

2.- Fundazioak bere helburuekin zerikusia duten enpresa-jarduerak egin ahal izango ditu, edo aurrekoen osagarri edo lagungarri direnak.

3.- Halaber, edozein jarduera ekonomikotan esku hartu ahal izango du, sozietateetan parte hartuz, indarreko araudian aurreikusitakoaren arabera, eta ezin izango du inolako partaidetzarik izan sozietate-zorren gaineko erantzukizun pertsonala duten merkataritza-sozietateetan.

4.- Fundazioak, bere jarduerak egiteko, baliabide ekonomiko hauek izango ditu, besteak beste:

- Ekonomia-ustiapenen bidez lorturikoak, bai eta Fundazioaren aktiboak sortutako etekinak ere.
- Fundazioak Administrazio Publikoetatik edo beste erakunde publiko batzuetatik helburu horretarako jasotzen dituen dirulaguntzak eta bestelako liberalitateak.
- Fundazioaren jardueretatik atera daitezkeen aldeko saldoak.
- Edozein pertsonarekin edo erakunde publiko edo pribaturekin lankidetzahitzarmenak sinatuta lortzen dituenak.
- Jaraunspen, legatu, dohaintza edo doako eskuratzeetatik eratorritakoak.
- Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideetatik eratorritako etekinak eta Fundazioaren besterentzetik eratorritakoak.
- Zorpetze-eragiketetatik eratorritakoak, betiere indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Zehaztu gabeko beste edozein, Fundazioaren titulartasunekoa bada eta edozein titulu juridiko legitimoren bidez eskuratu bada.

Aurreko ataletan aipatu jarduerak Fundazioak berak egin ahal izango ditu, zuzenean edo

zeharka, helburu berak edo antzekoak dituzten beste erakunde batzuetan parte hartuz eta Fundazioaren helburuak lortzeko kasu bakoitzean komenigarriak edo beharrezkoak diren legezko bitartekoak erabiliz.

8. artikulua. Jarduteko askatasuna.

Patronatuak askatasun osoa izango du Fundazioaren jarduerak zehazteko, betiere Fundazioaren ustez eta bere helburuen barruan une bakoitzean egokienak edo komenigarrienak diren helburu zehatzak lortzera bideratuta egonez gero.

9. artikulua. Jardueren publizitatea.

Fundazioak bere helburu eta jardueri buruzko behar adina informazio zabalduko du, balizko onuradunek eta gainerako interesdunek ezagut ditzaten.

III. KAPITULUA. BALIABIDEAK APLIKATZEKO ETA ONURADUNAK ZEHAZTEKO OINARRIZKO ARAUAK

10. artikulua. Errenten eta diru-sarreraren xedea.

1.- Fundazioaren ondasunak eta errentak zuzenean eta berehala atxikiko zaizkio Fundazioaren helburuen betetzeari.

2.- Fundazioak aldizka programatuko ditu bere xedeari dagozkion jarduerak; horretarako, urtero egingo da prestazioen plangintza, baita horiek gauzatzeko eta esleitzeko modua ere.

3.- Fundazioak kontabilitate-emaitzaren % 70, gutxienez, erabili beharko du Fundazioaren helburuak betetzeko, Nafarroako Fundazioei buruzko ekainaren 30eko 13/2021 Foru Legean ezarritako doikuntzen eta baldintzen arabera zuzendurik. Gainerako kontabilitate-emaitzak, Fundazioaren xedea betetzera bideratuta ez dagoenak, zuzkidura edo erresebak handitu beharko ditu, Patronatuaren erabakiaren arabera.

11. artikulua. Onuradunen hautaketa.

1.- Fundazioaren helburuak hartzaile-talde orokorrak izan behar ditu xede. Zehazki, Patronatuaren iritziz prestazioak jasotzea merezi duten pertsona fisiko edo juridiko guztiak izan daitezke Fundazioaren prestazioen onuradun.

2.- Onuradunak hautatzeko orduan, Patronatuak inpartzialtasunaren eta diskriminaziorik ezaren irizpideei jarraituko die, baldintza hauek betetzen dituzten pertsonen artean:

- a) Fundazioak artatzen duen biztanleria-sektorearen parte izatea.
- b) Fundazioak eskain dezakeen prestazioa edo zerbitzua eskatzea.
- c) Merezimenduengatik, gaitasunagatik, beharrianagatik edo komenientziagatik esleitzea.
- d) Berariaz ezar daitezkeen beste baldintza batzuk betetzea.

- 3.- Inork ezin izango du alegatu Fundazioaren edo haren Patronatuaren aurrean, ez bakarka ez taldeka, bere onurez esleituak izan aurretik gozatzeko eskubidea, eta ezin izango du inposatu onurok pertsona edo kolektibo jakin batzuei ematea.
- 4.- Banaka zehaztutako pertsonak ezin izango dira inola ere hartzaile izan.
- 5.- Fundatzaileak eta beren ezkontideak edo haiekin antzeko afektibitate-harremana duten pertsonak, edo laugarren mailara bitarteko senideak, horiek barne, ezin izango dira Fundazioaren jardueren hartzaile nagusiak izan, eta ezin izango dute egoera berezirik izan zerbitzuez baliatzeko.
- 6.- Fundazioak bere onuradunei ematen dizkien zerbitzuak ordainduak izan daitezke, eskuraturiko zenbatekoa Fundazioaren helburuetarako erabiliz gero eta onuradun izan daitezkeen esparrua justifikaziorik gabe mugatu ezean.

IV. KAPITULUA. FUNDAZIOAREN PATRONATUA

12. artikulua. Patronatuaren izaera.

- 1.- Fundazioa gobernatzea, administratzea eta ordezkatzea Patronatuari dagokio. Patronatuak dagozkion ahalmen eta eginkizun guztiak izango ditu, indarrean dagoen araudian xedatutakoari eta eratzaillearen borondateari (eratze-egintzan eta Estatutu hauetan adierazitakoari) jarraikiz.
- 2.- Patronatuari dagokio Fundazioaren helburuak betetzea eta betearaztea, eta Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzea, bai eta horien errendimenduari eta erabilgarritasunari erabat eustea ere, kudeaketa onaren irizpide ekonomiko-finantzarioen arabera.

13. artikulua. Patronatukideak

- 1.- Patronatua osatzen duten pertsonak ordezkari leialaren arduraz bete beharko dituzte beren zereginak.
- 2.- Patronatukide izatea bateraezina izango da entitateari ordaindutako zerbitzuak ematearekin. Bateraezintasun horrek fundatzaileari eta haren ezkontideari edo harekin antzeko afektibitate-harremana duen pertsonari ere eragingo die.
- 3.- Patronatukideek deituak diren bileretara joan beharko dute, eta dagozkien jardueretan indarreko lege-xedapenetan eta Estatutu hauetan ezarritakoa bete beharko dute.
- 4.- Patronatukideek modu independentean baliatuko dituzte beren ahalmenak, oztoporik eta mugarik gabe, eta beren ebazpenak edo erabakiak hartzerakoan ezin izango zaie Estatutu hauetan edo indarreko araudian espresuki ezarritako baldintzez bestelako baldintzarik ezarri.
- 5.- Patronatukideek erantzukizun solidarioa izango dute Fundazioaren aurrean, araudiaren edo Estatutuen aurkako egintzengatik edo beren eginkizunak betetzeko izan behar duten ardurarik gabe egindako egintzen ondorioz eragindako kalte-galerengatik. Erantzukizunetik salbuetsita geratuko dira erabakiaren aurka bozkatu dutenak eta,

erabakia hartzen eta betearazten esku hartu ez arren, erabakiaren berririk izan ez dutela frogatzen dutenak edo, erabakiaren berri izanda ere, kaltea saihesteko komeni zen guztia egin zutela edo, behintzat, erabakiaren aurka espresuki agertu zirela frogatzen dutenak.

14. artikulua. Doakotasuna.

1.- Patronatukideek dohainik beteko dituzte beren zereginak, baina eskubidea izango dute beren eginkizunak betetzean sortzen zaizkien eta behar bezala justifikatuta dauden gastuak itzul diezazkieten. Kontzeptu horrengatik jasotzen dituzten zenbatekoek ezin izango dituzte gainditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian zergetatik salbuetsitako dietatzat jotzeko aurreikusitako mugak.

2.- Patronatukideek ezin izango dute erakundearen emaitza ekonomikoetan parte hartu, ez beren kabuz ez bitarteko pertsona edo erakunde baten bidez.

15. artikulua. Osaera.

1.- Patronatua gutxienez hiru kidek eta gehienez hogeik osatuko dute. Muga horien barruan, Patronatuari berari dagokio une bakoitzean kopuru zehatza ezartzea.

2.- Patronatua osatu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisikoek, kargu publikoak betetzeko gaitasungabetuta eta bateraezintasun-egoeraren batean egon ezean.

3.- Pertsona fisikoak berak bete beharko du patronatukidearen eginkizuna. Dena dela, hark izendatutako beste patronatukide batek haren izenean eta ordezkari gisa jardun ahal izango du; ordezkaritza hori ekitaldi zehatzetarako izan beharko da, eta, hala badagokio, ordezkatuak idatziz ematen dituen jarraibideak bete beharko ditu.

4.- Pertsona juridikoek Patronatuan parte hartu ahal izango dute, haiek ordezkatuak dituzten pertsona fisikoak izendatuta, baita ordezkarien ordezkapen-hurrenkera ere, bat baino gehiago izanez gero.

5.- Betetzen duen karguagatik patronatukide izateko deitzen zaionaren izenean jardun ahal izango du haren ordezkoak.

A.- Osasunako presidentea eta Klubeko Zuzendaritza Batzordeko hiru kidek osatuko dute, Batzordeak berak izendatuta.

B.- Era berean, Patronatuko kide izango dira Osasuna Fundazioaren Eskumendeko Klubeko presidentea, halakorik balego, eta, hala badagokio, jarduera horri lotutako hitzarturiko klubetako hiru ordezkari, Patronatuak izendatuta.

C.- Osasunako bazkiderik zaharrena.

D.- Klubeko ehun bazkide zaharrenetarikoa bat.

E.- Patronatuak Hauteskunde Batzordeko, Bazkidea Defendatzeko Organoko, Kontrol Batzordeko eta Osasunako Diziplina Organoko kideen artean aukeraturiko bi ordezkari.

F.- Beteranoen Elkarteko presidentea.

G.- Osasunako bazkide diren hiru pertsona juridiko, Klubeko Zuzendaritza Batzordeak izendatuta.

H.- Gainera, Patronatuko biziarteko kide izango dira Osasunako presidente ohiak eta Patronatuan uneren batean karguak bete dituzten pertsona jakin batzuk, baldin eta Klubeko bazkide izaten jarraitzen badute eta, Patronatuak berak eskatuta, Osasuna Fundazioaren Patronatuko kide izatea onartzen badute.

Behar adina patronatukide izan ezean, uko egiteagatik, hautagairik ez egoteagatik edo edozein arrazoiengatik, Patronatuak berak izendatuko ditu ordezkioak, eta Osasunako Zuzendaritza Batzordeak aurkeztuko ditu hautagaiak, ahal dela adierazitako atal bakoitzaren barruan. Hots: Zuzendaritza Batzordea. Baldin balego, Eskumendeko Klubaren jardura honi loturiko Hitzarturiko Klubak. Klubeko Erakundeak. Klubeko bazkide diren Pertsona Juridikoak, eta pertsona fisikoak.

Postu bat bete gabe geratuz gero, Patronatuak, gehienez bi hilabeteko epean, beste pertsona bat izendatuko du postu hori betetzeko, artikuluko honetan ezarritako proportzionaltasun-parametroen arabera.

16. artikulua. Kideak izendatzeko arauak.

1.- Lehenengo Patronatua eratze-eskrituran izendaturikoa izango da.

2.- Patronatukideak sei urterako izendatuko dira, eta inolako mugarik gabe behin baino gehiagotan hautatu ahal izango dira, salbu eta Estatutu hauetan ezarritako alde aurreko baldintza betetzeagatik izendaturiko berezko kideak badira; kasu horretan, dagokien agintaldia karguan, lanbidean, duintasunean edo izaera hori betetzea dakarren beste edozein egoeratan egon bitartean luzatuko da.

3.- Patronatukideek beren zereginak beteko dituzte harik eta berritzea edo ordeztea erabakitzen den Patronatuaren hurrengo bilerara arte.

4.- Patronatukide berrien izendapena edo berritzea Patronatuak berak egingo du, presidentearen proposamenez, Estatutu hauetan adierazitako kasuetan salbu: izendapena Osasunako Zuzendaritza Batzordeari badagokio edo berezko kideak badira.

5.- Uneren batean Patronatua osatzen duten kide guztiak faltatuz gero, fundatzaileek izendatuko dituzte patronatukideak, eta, halakorik izan ezean, Babesletzari egokituko zaio izendapen-ahalmena.

17. artikulua. Karguak Patronatuan.

1.- Patronatuak presidentea hautatuko du bere kideen artetik, bai eta idazkaria izendatuko ere, patronatukidea izan daitekeena edo ez. Patronatukide izan ezean, ahotsa izango du, baina bozkarik ez.

2.- Patronatuak presidenteordea eta diruzaina ere izendatu ahal izango ditu bere kideen artetik.

3.- Kargu horietako bat ere betetzen ez duten patronatukideak batzordekideak dira.

4.- Kargu horiek Patronatuak izendatuko ditu gehiengo soilez, 25. artikuluaaren arabera. Baliogabetzeko, ordea, bi herenen aldeko botoa beharko da, 25. artikuluaaren arabera.

18. artikulua. Patronatukideen onarpena.

Patronatukideak beren izendapena eta, hala badagokio, kargua espresuki onartu ondoren hasiko dira dagozkien zereginak betetzen. Onarpenak agiri publikoan egingo dira, Notarioak legeztatutako sinadura duen agiri pribatuan, edo Nafarroako Fundazioen Erregistroan horretarako agertuta. Halaber, Patronatuaren aurrean egin ahal izango dira, Idazkariak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuta.

19. artikulua. Presidentearen zereginak.

1. Patronatuak patronatukideen artean hautatuko du Presidentea, gehiengo soilez, eta haren agintaldia 6 urtekoa izango da, patronatukide izateari uzten ez badio edo Patronatuak kargugabetzen ez badu. Horretarako, patronatukideen bi herenen adostasuna beharko da.

2. Hauek dira Presidentearen zereginak:

- a) Fundazioaren legezko ordezkaria, ordezkari judiziala edo judizioz kanpoko izatea eta hala jardutea.
- b) Patronatuaren bilerak deitzea, gai-zerrenda osatzea, eztabaidak moderatzea eta bilerei amaiera ematea.
- c) Patronatuaren erabakiak betetzen direla zaintzea; horretarako, mota orotako egintzak egin eta horretarako beharrezko dokumentuak izenpetu ahal izango ditu.
- d) Osasuna Fundazioaren sinadura erabiltzea eta eskuordetzea.
- e) Patronatuaren edo Batzorde Betearazlearen edozein bozketatan berdinketa ebaztea, bere kalitatezko botoarekin.
- f) Estatutuak eta indarreko araudia betetzen direla zaintzea.
- g) Araudiz edo Estatutuz esleitzen zaion beste edozein eskumen, Presidente den aldetik, eta espresuki eskuordetzen zaizkionak.

3. Presidente ez badago edo gaixorik badago, Presidenteordeak beteko ditu haren zereginak, eta, halakorik ez badago, patronatukiderik zaharrenak.

20. artikulua. Idazkariaren zereginak.

1. Patronatuak hautatuko du, gehiengo soilez, eta haren agintaldia 6 urtekoa izango da, patronatukide izateari uzten ez badio edo patronatuak kargugabetzen ez badu. Horretarako, patronatukideen bi herenen adostasuna beharko da.

Fundazioko Idazkari-kargua Patronatukoa ez den pertsona batek bete ahal izango du, Patronatuak egoki irizten badio; kasu horretan, Idazkariak hitza izango du Patronatuan, baina botorik ez.

2. Hauek dira Idazkariaren zereginak:

- a) Presidentearen aginduz Patronatuaren bileretarako deialdia egitea eta patronatukideak deitzea.
- b) Bileretara joatea eta aktak idaztea.
- c) Fundazioaren dokumentazio guztia zaintzea.
- d) Presidentearen edo haren ordezkorekin oniritziarekin ziurtagiriak egitea, baita beharrezko txostenak ere.

- e) Diruzaintzaz arduratzea, Patronatuan diruzainik ez dagoenean.
 - f) Araudiz edo Estatutuz esleitzen zaion beste edozein eskumen, Idazkaria den aldetik, eta espresuki eskuordetzen zaizkionak.
3. Idazkaria ez badago edo gaixorik badago, patronatukiderik gazteenak beteko ditu haren zereginak.

21. artikulua. Presidenteordearen zereginak.

1. Patronatuak patronatukideen artean hautatuko du Presidenteordea, gehiengo soilez, eta haren agintaldia 6 urtekoa izango da, patronatukide izateari uzten ez badio edo Patronatuak kargugabetzen ez badu. Horretarako, patronatukideen bi herenen adostasuna beharko da.
2. Hauek dira Presidenteordearen zereginak:
- a) Presidente ordezteko eginkizunak betetzea, kargu hori bete gabe dagoenean, Presidente ez dagoenean, hura gaixorik dagoenean edo bateraezintasun-arrazoiren bat dagoenean. Patronatuak erabakitzen duen kasuetan, Fundazioaren ordezkari ere jardun ahal izango du.
 - 3. Presidenteordea ez badago edo gaixorik badago, Presidenteak izendaturiko kideak beteko ditu haren zereginak.

22. artikulua. Diruzainaren zereginak.

1. Diruzain-kargua baldin badago, Patronatuak patronatukideen artean hautatuko du, gehiengo soilez, eta haren agintaldia 6 urtekoa izango da, patronatukide izateari uzten ez badio edo Patronatuak kargugabetzen ez badu. Horretarako, patronatukideen bi herenen adostasuna beharko da.
2. Hauek dira Diruzainaren zereginak:
- a) Fundazioaren funtsak zaintzea eta kontabilitateaz arduratzea.
 - b) Presidentearekin batera, funtsak erabiltzeko baimena ematea.
 - c) Inbentarioa, egoera-balantzea, emaitzen kontua eta memoria ekonomikoa egitea.
 - d) Araudiz edo Estatutuz esleitzen zaion beste edozein eskumen, Diruzaina den aldetik, eta espresuki eskuordetzen zaizkionak.
3. Diruzaina ez badago edo gaixorik badago, Presidenteak izendaturiko kideak beteko ditu haren zereginak.

23. artikulua. Patronatukideen kargu-uztea.

Fundazioko patronatukideen kargu-uztea arrazoi hauengatik gertatuko da:

- a) Heriotzagatik edo heriotza-deklarazioagatik, baita pertsona juridikoa azkentzeagatik ere.
- b) Ezgaitasunagatik, gaitasungabetzeagatik edo bateraezintasunagatik, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.
- c) Kargu baterako izendatua izanik kargua uzteagatik.

- d) Karguari dagozkion zereginak behar besteko arduraz ez betetzeagatik, Patronatuak berak hala adieraziz gero, patronatukideari aldeztuz aurretik entzunda, edo epailearen ebazpen bidez.
- e) Erantzukizun-akzioa indarreko legerian xedatutakoaren arabera jasotzen duen ebazpen judizial bidez.
- f) Karguari dagozkion agintaldia igarotzeagatik, epealdi jakin baterako izendatua izan bazen.
- g) Patronatukideen bi herenen gehiengoz, fundatzailearen aurkako xedapenik ezean.
- h) Uko egiteagatik, onarpenerako aurreikusitako moduetan egin ahal izango dena.

24. artikulua. Patronatuaren eskumenak.

1. Patronatuaren eskumenak Fundazioaren gobernuari, ordezkariari eta administrazioari dagozkien guztiak dira, salbuespenik gabe, bai eta Estatutu hauek interpretatzea eta aldatzea ere.
2. Hauek dira, baina ez hauek bakarrik, Patronatuaren atribuzioak eta eskumenak:
 - a) Fundazioaren lanaren goi-mailako zuzendaritzaz, ikuskapenez, zaintzaz eta orientazioaz arduratzea, eta haren aldizkako kudeaketa-planak eta jarduketa-programak onartzea.
 - b) Fundazioaren Estatutuak interpretatzea eta garatzea, hala badagokio, dagozkion araudi osagarriarekin, eta haien aldaketari buruzko erabakiak hartzea, betiere Fundazioaren interesetarako eta haren helburuak hobeto betetzeko komenigarria izanez gero.
 - c) Fundazioaren bat-egitea erabakitzea, Estatutu hauetan aurreikusitako moduan.
 - d) Fundazioa azkentzea erabakitzea, horretarako arrazoiren bat dagoenean.
 - e) Fundazioaren jarduketa-lehentasunak ezartzea, eta funts erabilgarriak banatzeko eta aplikatzeko ildo nagusiak finkatzea, Fundazioaren helburuak hobeto betetzeko.
 - f) Hurrengo ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua onartzea.
 - g) Epealdi horretako Inbentarioa, Egoera-balantzea, Eraitzen kontua, Jardueren eta Kudeaketa ekonomikoaren memoria, eta diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuaren likidazioa onartzea.
 - h) Fundazioaren prestazioen onuradunak hautatzea.
 - i) Fundazioaren helburuekin lotura duten pertsonekin edo erakunde publiko edo pribatuekin prestazioak eta lankidetzak hitzartzea.
 - j) Jaraunspenak, legatuak edo dohaintzak onartzea edo ez onartzea, Fundazioarentzat egokitzat jotuz gero.
 - k) Oro har, Fundazioaren ondasunak eta eskubideak erabiltzeko, administratzeko, kontserbatzeko, zaintzeko eta defendatzeko eginkizun guztiak betetzea, bai judizialki bai judizial kanpo.
 - l) Ordezkaritzak irekitzea eta ixtea erabakitzea.
 - m) Bere ahalmenak patronatukide bati edo gehiagori eskuordetzea, honako hauek izan ezik: kontuen onarpena, aurrekontuaren eta jarduketa-planaren onarpena, Estatutuaren

aldaketa, Fundazioaren bat-egitea eta likidazioa, eta, hala badagokio, Babesletzaren baimena behar duten egintzak.

n) Ahaldun orokorrak edo bereziak izendatzea.

ñ) Estatutu hauetan aurreikusitako Fundazioko beste organo batzuetako titularrak edo kideak izendatzea, hala badagokio.

o) Fundazioa Babesletzari atxikita badago, fundazio-eskubidea behar bezala erabiltzen dela eta Fundazioaren funtzionamendua legezkoa dela egiaztatzen uztea hari, eta, hala badagokio, harekiko komunikatzeko eta baimena eskatzeko betebeharrak betetzea.

p) Fundazioarentzat edo Fundazioak ondasun higigarriak edo higiezinak eskuratzea, besterentzea eta kargatzea erabakitzea –hipotekak, bermeak edo antikresiak barne –, eta horretarako beharrezko kontratuak sinatzea.

q) Fundazioarentzat, edo Fundazioaren xedean jasotako helburuetako bat betetzeko, ondasunak edo eskubideak eskuratzea onartzea, baldin eta libreki uste badu eskuratutako ondasun edo eskubideen izaera eta zenbatekoa egokia edo nahikoa dela ondasun edo eskubideok, horien errentak edo fruituak erabiliz bete nahi den helburua lortzeko.

r) Erakunde publiko edo pribatuekin mota orotako finantza-eragiketak hitzartzea, maileguak eta kredituak barne, eta hirugarrenak fidantza bidez bermatzea.

s) Fundazioaren zorroa osa dezaketen balore higigarriak eskuratzeari eta besterentzeari buruz erabakitzea.

t) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunen errentak, fruituak, dibidenduak, interesak, etekinak eta beste edozein produktu eta onura kobratzea eta jasotzea, bai eta edozein titulurengatik edo edozein pertsona fisiko edo juridikoren aldetik zor zaion zenbateko oro ere.

u) Fundazioari dagozkion eskubide politiko eta ekonomikoak baliatzea, bere jabetzako akzioen eta gainerako balore higigarrien titularra den aldetik, eta, ildo horretan, erabakitzen duen ordezkartzaren bidez, Batzar Nagusietan, Batzarretan, Sindikatuetan, Elkarteetan eta zor sozialen gaineko erantzukizun pertsonalik ez dagoen dagozkion Konpainiako edo erakunde jaulkitzaileetako gainerako organismoetan eztabaidatzea eta bozkatzea, aipatu titularrari esleituriko ahalmen juridiko guztiak baliatuz, egokitzen dituen egintzak, kontratuak, hitzarmenak, proposamenak eta agiriak hitzartuz, xedatuz eta izenpetuz.

v) Fundazioak une bakoitzean dituen funtsak biltzeko, administratzeko eta babesteko beharrezko ordainketak egitea, dibidendu pasiboenak eta gastuenak barne.

w) Fundazioaren helburuetarako komenigarritzat jotzen dituen obrak egitea erabakitzea, baita egiteko modu egokia eta mota orotako hornidurak erabakitzea ere, horien kalitatea eta garrantzia edozein izanda ere. Horretarako, askatasun osoz erabili ahal izango du edozein prozedura, hala zuzenean eskuratzekoa nola enkante edo lehiaketa bidezkoa.

Inolako baimenik behar izan gabe.

x) Eskubide, ekintza eta salbuespen guztiez baliatzea, dagozkion izapide, instantzia, intzidentzia eta errekurtsu guztiei jarraikiz Fundazioari dagokion edo interesatzen zaion

prozedura, espediente, erreklamazio eta epaiketa orotara jota, eta, horretarako, beharrezkotzat jotzen dituen ahalordeak xedatzea, posizioei erantzutea eta berrikuspen-judizioa barne.

y) Oro har, Fundazioaren ondasunak erabiltzeko, administratzeko, kontserbatzeko, zaintzeko eta defendatzeko eginkizun guztiak betetzea, judizialki zein judizioz kanpo.

z) Fundazioa administratzeko, gobernatzeko eta ordezkatzeko garatu beharreko gainerako eskumenak, indarrean dagoen araudiak esleitutakoak. Patronatuak hartutako erabakiak Presidenteak betearaziko ditu, erabakiotan beste patronatukide bat edo hainbat espresuki izendatu ahal izatea alde batera utzi gabe.

25. artikulua. Bilerak eta akordioak.

1. Patronatua urtean bitan bilduko da, gutxienez, baita Presidenteak deitzen duen bakoitzean edo patronatukideen herenak, gutxienez, eskatzen duenean ere.

2. Deialdietan, gai-zerrenda eta bileraren inguruabarrak azalduko dira, eta gutxienez 10 egun natural lehenago jaso direla egiaztatzea ahalbidetzen duen edozein bide erabiliz bideratuko dira.

3. Patronatukide guztiak bilduta Patronatua eratzea erabakitzen badute, aho batez, ez da deialdirik egin beharko.

4. Patronatuak aurrez aurre edo urrutitik egin ahal izango ditu bilerak, kideak leku desberdinetan egon ahal izanda, baldin eta bitarteko elektronikoen bidez haien nortasuna, haien adierazpenen edukia eta adierazpenok egiten diren unea ziurtatzen badira, baita interaktibitatea eta interkomunikazioa denbora errealean eta saio osoan bitarteko horien erabilgarritasuna ere.

5. Patronatua baliozkotasunez eratuta egongo da, bilerak egiteko eta erabakiak hartzeko, aurrez aurre edo urrutitik Presidenteak eta Idazkaria, edo Estatutuen arabera haien ordezkariak, eta patronatukideen erdiak, gutxienez, bertaratzen badira, proportzio horretan aurrekoak zenbatuta.

6. Erabakiak, oro har, aurrez aurre edo ordezkatuta bertaratutako patronatukideen botoen gehiengo soilez hartuko dira, hau da, baiezko botoak ezezkoak baino gehiago izanik. Berdinketa gertatuz gero, Presidenteak kalitatezko botoa izango du.

7. Hala ere, honako hauei buruzko erabakiak onartzeko, Patronatukideen bi herenen aldeko botoa beharko da:

a) Estatutuen aldaketa.

b) Fundazioaren bat-egitea.

c) Fundazioa azkentzea.

d) Fundazioko patronatukideen kargu-uztea.

8. Idazkariak bilera bakoitzari dagokion akta idatziko du, Presidentearen oniritziarekin, non aurrez aurre zein ordezkatuta bertaratutakoen izen-abizenak, bilerako gai-zerrenda, bilera non eta noiz egin den, eztabaidetako puntu nagusiak (kideek eskatzen badute) eta hartutako erabakien edukia jasoko diren. Aktak Patronatuaren bilera berean edo hurrengoan onartuko dira.

V. KAPITULUA. FUNDAZIOKO BESTE ORGANO BATZUK

26. artikulua. Organo eskuordetuak.

Patronatuak, bere zereginak betetzeko, honako organo hau eskuordetu ahal izango du:

Batzorde Betearazlea

Patronatuak Batzorde Betearazlea sortu ahal izango du, lau kidez osatua, denak ere patronatukide: Presidentea eta beste hirurak Patronatuak berak izendatutako kideak. Ahalegina egingo da kide horiek, aipatu kopurura heldu arte, alor desberdinetakoak izan daitezen, hala nola, baldin balego, Eskumendeko Klubaren jarduera honi loturiko Hitzarturiko Klubak, Klubeko Erakundeak, Klubeko bazkide diren Pertsona Juridikoak eta pertsona fisikoak.

Jorratu beharreko gaien izaeraren arabera, Fundazioko zuzendaria, Osasunako Kudeatzailea edo Batzorde Betearazleak egokitzen jotzen dituen Klubeko langileak Batzordearen bileretara deitu ahal izango dira, gaiei buruzko iritzia eman dezaten; dena den, iritzioak ez dira inola ere lotesleak izango Batzordearentzat. Batzordeburua Patronatuko Presidentea izango da, edo Estatutu hauen 19. artikuluaen arabera haren ordezkoa, eta gainerako kideak batzordekideak izango dira.

Batzordeak Patronatuak eskuordetzen edo agintzen dizkion jarduera edo eginkizun guztiak beteko ditu, betiere eskuordetza edo agindu hori legearekin bat etorritz gero. Patronatuarekiko harremana aplikatu beharreko araudian eginkizunen eskuordetza arautzen duten xedapenetara egokituko da.

Batzorde Betearazlea bildu ahal izango da:

- Sei hilean behin, gutxienez.
- Presidenteak beharrezkotzat jotzen duenean.
- Patronatukideen erdiek eskatzen dutenean.

Batzorde Betearazleak egokitzen jotzen dituen pertsonen bileretan parte hartzea erabaki ahal izango du; hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ezingo dute bozkatu.

Batzordea kideen gehiengo bertaraten denean egongo da baliozkotasunez eratuta, eta erabakiak gehiengo soilez hartuko dira.

27. artikulua. Zuzendaritza-, laguntza- eta lankidetzak-organak.

1. Patronatuak, egoki iritzi gero, Zuzendari bat eduki ahal izango du bere zereginak betetzeko. Kasu horretan, Zuzendariak behar bezalako erantzukizunez eta fede onez bete beharko du kargua.

2. Zuzendaria Patronatuaren erabakiz izendatu edo kargugabetuko da.

3. Zuzendariak, baldin badago, eginkizun hauek beteko ditu:

a) Fundazioaren jarduerak zuzenean kudeatzea eta haren baliabide arruntak administratzea, Patronatuaren erabakien arabera.

b) Fundazioaren funtzionamendua ikuskatzea, Patronatuari kontu emateko.

- c) Boluntarioen, laguntzaileen eta kontratatuta egon daitezkeen langileen buru izatea.
 - d) Gastuak baimentzea eta ordainketak agintzea, Patronatuak espresuki ezarritako Aurrekontuaren eta/edo diru-kopuruaren mugen barruan.
 - e) Patronatuak agintzen dion beste edozein zeregin.
4. Zuzendari-kargua ordaindua izango da.

VI. KAPITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOA

28. artikulua. Zuzkidura.

Fundazioaren zuzkidura izan ahalko da fundatzaileek Fundazioa eratzeko unean haren helburuak betetzeko lotzen dituzten ondarezko ondasunak eta eskubideak, honako hauek osatuta:

- a) Hasierako zuzkidura, ezeztalezina eta itzulezina izango dena.
- b) Fundazioa existitzen den bitartean gerora egindako zuzkidura-gehikuntzak, diru-ekarpen berriak eginez, ondare-erreserbak edo -soberakinak eraldatuz, fundatzaileek edo hirugarrenek zuzkidura gisa egindako ekarpenen eta Patronatuak Fundazioaren helburuei modu iraunkorrean loturikoen bidez.

29. artikulua. Ondarea.

1. Fundazioaren ondarea mota orotako ondasun, eskubide eta betebeharrak osatu ahal izango dute, edonon kokatuta ekonomikoki zenbatesgarriak direnak; bereziki, honako hauek:

- a) Ondasun higiezinak, Jabetza Erregistroan Fundazioaren izenean inskribatuko direnak, hala badagokio.
- b) Balore higigarriak, banku- edo aurrezki-establezimenduetan Fundazioaren izenean gordailutuko direnak.
- c) Ondasun higigarriak, jabetza-tituluak, gordailu-frogagiriak edo Fundazioaren titulartasuneko jabaria, edukitza, erabilera, gozamina edo beste edozein eskubide egiaztatzen duen beste edozein agiri.
- d) Liburutegiak, artxiboak eta bestelako aktiboak, Fundazioaren inbentarioan jasoak.

2. Fundazioaren ondarea haren helburuak betetzeko eta etekinak edo ondare-gehikuntzak lortzeko modurik egokienean inbertituko da.

30. artikulua. Kontabilitatea eta aurrekontua.

1. Fundazioak kontabilitate ordenatua eta bere jarduerari egokitua eraman beharko du, egindako eragiketen jarraipen kronologikoa ahalbidetuko duena. Kontabilitate Plan Orokorra irabazi-asmorik gabeko erakundeei egokitzeko arauak nahitaez aplikatu beharko dira.

2. Fundazioak une bakoitzean aplikatzekoa den araudian kontabilitateari, auditoretzari eta aurrekontuei buruz jasotako aurreikuspenak errespetatu beharko ditu.

3. Fundazioaren Patronatuak ondasunen inbentarioa, egoera-balantzea eta emaitzen kontua eratuko ditu, urtero, non Fundazioaren benetako ekonomia-, finantza- eta ondare-egoera agertuko duen. Horrez gain, Fundazioaren jardueren eta kudeaketa ekonomikoaren gaineko memoria idatziko du, finantzaketa-taula eta Fundazioaren helburuen betetze-maila ere jasota. Memoriak, gainera, ondare-aldaketen eta gobernu-, zuzendaritza- eta ordezkaritza-organoetan egindako aldaketen berri emango du.
4. Fundazioak aurreko paragrafoan aipatu agiriak Babesletzari aurkeztuko dizkio, hurrengo ekitaldiko lehen sei hilabeteen barruan.
5. Patronatuak aurreko urteko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuaren likidazioa ere egingo du.
6. Patronatuak kanpo-auditoretzapean jarriko ditu urteko kontuak, indarrean dagoen araudiak hala eskatzen duenean edo egoki irizten dionean. Auditoretza-txostenak egin eta hiru hilabeteko epean aurkeztuko zaizkio Babesletzari.
7. Hala badagokio, Patronatuak araudiak xedaturiko dokumentazio ekonomikoa Administrazio eskudunari aurkeztuko dio.

31. artikulua. Ekitaldi Ekonomikoa.

Fundazioaren ekitaldi ekonomikoa uztailaren 1ean hasi eta hurrengo urteko ekainaren 30ean amaituko da.

VII. KAPITULUA. FUNDAZIOAREN ESTATUTUEN ALDAKETA

32. artikulua. Estatutuen aldaketa.

1. Patronatuak Fundazioaren Estatutuak aldatzea erabaki ahal izango du, fundatzaileek debekatu ezean, eta haren interesak eta helburuak hobeto betetzeko komenigarria izanez gero.
2. Aldaketa patronatukideen bi herenen aldeko botoarekin erabaki beharko da.
3. Aldatzeko erabakia arrazoitu egin beharko da, eta eskritura publikoan jaso.
4. Patronatuak indarreko araudiak eta Estatutu hauek onartutako aldaketari dagokionez ezartzen dituzten betebeharrak beteko ditu. Bereziki, Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatzea sustatuko du.

VIII. KAPITULUA. FUNDAZIOAREN BAT-EGITEA ETA AZKENTZEA

33. artikulua. Fundazioaren bat-egitea.

1. Patronatuak Fundazioa beste fundazio batekin edo batzuekin bat egitea erabaki ahal izango du, betiere Fundazioaren helburuak errespetatuz gero eta fundatzaileek erabaki hori debekatu ezean.
2. Bat-egitea patronatukideen bi herenen aldeko botoarekin erabaki beharko da.

3. Bat egiteko erabakia arrazoitu egin beharko da, eta eskritura publikoan jaso.
4. Patronatuak indarreko araudiak eta Estatutu hauek onartutako bat-egiteari dagokionez ezartzen dituzten betebeharrak beteko ditu. Bereziki, Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatzea sustatuko du.

34. artikulua. Azkentzeko arrazoiak eta prozedura.

1. Fundazioa honako arrazoi hauengatik azkenduko da:
 - a) Fundazioaren xedea osorik bete delako.
 - b) Fundazioaren xedea betetzea ezinezkoa delako, Fundazioa aldatzea edo beste fundazio batekin edo batzuekin bat egitea alde batera utzi gabe. Bat-egiteak Fundazioa azkentzea eragin dezake.
 - c) Azkentzea dakarren bat-egite prozedura.
 - d) Fundazioaren jarduerak edo helburuak legez kontrakoak direlako, epai irmo baten arabera.
 - e) Eratze-eskrituran edo indarreko araudian aurreikusitako beste arrazoi batzuk daudelako.
2. Fundazioa azkentzeko, patronatukideen bi herenen aldeko botoa beharko da, arrazoi automatikoa egon edo arrazoituriko ebazpen judizial batek agindu ezean.
3. Azkentzeko erabakia arrazoitu egin beharko da, eta eskritura publikoan jaso.
4. Patronatuak indarreko araudiak eta Estatutu hauek onartutako azkentzeari dagokionez ezartzen dituzten betebeharrak beteko ditu. Bereziki, Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatzea sustatuko du.

35. artikulua. Soberakinaren likidazioa eta esleipena.

1. Fundazioa azkentzeak, beste fundazio batekin bat egitearen ondorioz gertatu ezean, likidazio-prozedura hastea eragingo du. Prozedura hori Patronatuak gauzatuko du, batzorde likidatzaile gisa eratuta, eta, hala badagokio, indarreko araudian xedatutakoa beteko du. Bereziki, Patronatuak Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatzea sustatuko du.
2. Likidazioaren ondoriozko ondasun eta eskubide guztiak Fundazioak beteriko interes orokorreko helburuen antzeko xedeak dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatu baten edo hainbaten alde erabiliko dira. Erakunde hartzaile hori edo horiek Patronatuak zehaztuko ditu, hala badagokio, azkentzea erabakitzen den unean.